



EBAZPENA, 2022KO URRIAREN 11KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA ZERBITZU-EGINKIZUNEN, BEHIN-BEHINEKO ATXIKIPENAREN ETA ORDEZKAPEN BERTIKALAREN BIDEZ ALDI BATERAKO LANPOSTUAK BETETZEKO.

- 1.- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 527. artikulua arabera, lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapenen bidez beteko dira aldi baterako, eta 514. artikulua, berriz, lanpostu huts bati atxikita zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzea aurreikusten du.
- 2.- Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, 69., 73. eta 74. artikuluetan arautzen du zerbitzu aktibora itzultzeari, zerbitzu-eginkizunei eta ordezkapenei buruzko gaia.
- 3.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura arautzen du.
- 4.- Deialdi honen xedea da I. eranskinean adierazitako lanpostuak zerbitzu-eginkizunen, behin-behineko atxikipenaren eta ordezkapen bertikalaren bidez aldi baterako betetzea.
- 5.- Zerbitzu-eginkizuna, behin-behineko atxikipena eta ordezkapen bertikala eskatu ahal izango dituzte Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako, Laguntza Judizialeko eta Auzitegiko Medikuen kidegoetako Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioek.
- 6.- Lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.
- 7.- Eskabideak: hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, www.euskadi.eus/zerbitzuak/1205004 helbidearen bidez.
- 8.- Behin-behineko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian. Argitaratzen denetik hiru egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko.
- 9.- Behin betiko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2022eko urriaren 11a

Jon Arturo Uriarte Unzalu
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA